

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2023ko azaroak 3 · 1288 zenbakia

## MISPILLIBARKO SEMEARI OMENALDIA

T. Etxebarria, 1  
943 20 42 99

Gehien  
maite  
duzuna  
babestu!

# BIZI ASEGURUA

# EUKi

ASEGURUAK

Gure familia beti  
babestuta egongo  
den **garantia**

Informazio gehiago:  
[eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka



Balioaren %25  
Nafarroa hegoaldeko  
eta erdialdeko  
euskaragintzara  
bideratuko da

**Eskatu  
saskia!**



urriak 20 - azaroak 9



errigora.eus



# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Azaroan zehar uztailean hil zen Jon Etxabe gogoratzeko ekintzak egingo dituzte eta Josu Ibargutxi lagunak horien berri eman digu, Etxaberen bizitzaren inguruko errepasoa egiteaz gain.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Juan Carlos Ruiz (FOCU)

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Gaztainen denbora

Gaztainak kontsumitzearen onurak oso ugariak dira. Kardiobabes-efektua dute, anemia prebenitzen dute, aminoazido esentzial guztiak dituzte, fosforoa, kaltzioa eta magnesioa dituzte, gure nerbio-sistemaren funtzionamendu ona estimulatzen dute, etab.

Baina kontuz, gaztaina mota desberdinak daude. Denak ez dira jangarriak. Hona hemen horietako bi:

**Gaztaina 1.** Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko proiektuaren Europako finantzaketa lortzeko, proiektua *mugikortasun iraunkorraren* atalean sartu da. Horrez gain, ziurtatu da trenbide gainean egingo diren paseoa eta bidegorriak (1km-ko luzera) onura handia ekarriko dietela honako udalerrri hauetako herritarrei: Eibar, Elgoibar, Ermua, Mendaro, Soraluze, Donostia eta Bilbo.

**Gaztaina 2.** Eibarko Udalak dio komunikazio instituzionala, gardentasuna eta gobernu ona bultzatzen dituela, azaroaren 23an Eibarren egingo den Komunikazioari eta Udal Gardentasunari buruzko Kongresuaren harira.

Uste dugu gardentasuna, gobernu ona eta informazio faltsua bateraezinak direla. Udazkena heldu da, eta gaztaina garaian gaude. Batzuek guk gaztainak gordinik jatea nahi dute. Kontuz! *Gaztainerre* hurbiltzen ari da eta hesteetako arazoak sor diezazkigukete.

**No al paseo que nos entierra - Ekialdea Bai Auzo Elkarte**

## Greba Feminista San Andres egunean

Astelehenean, Greba batzordeko hainbat kide plenora joan ginen udalari San Andres eguneko egitaraua larunbatera aldatzeko eskaera egitera, A30ean guztiok greba egin dezagun bermatzeko.

Alkatearen erantzuna: "Hurrengo galdera". Benetan Jon Iraola? Hori da mugimendu feministari emateko daukazu erantzuna? Badirudi Greba Orokor Feminista ez dela plenoan lantzeko bezain gai serioa zuzetat... Guk gurean jarraituko dugu, Zaintzaren gaia problematizatuz, mahai gainean jarriz eta honi buelta emateko herri-proposamenak garatuz.

**Eibarko Greba Batzordea**

# Hortik esanak



Hobbesez gerraren zergatia giza ezaerari egotzen zion; Montesquieuk gizartean bizi zen gizakiari; Rousseauk, berriz, Estatuaren izaerari egotzen zion gerarren kausa; eta Humek, azkenik, Estatu nazionalen gobernatzeko moduari leporatzen zion gerraren arazoa. Gerrari buruz hitz egin ote daiteke Clausewitz ahotan hartu gabe? Bere "formula" sonatuaren berri ez dakien gutxi egongo da: "Gerra ez da beste bitarteko batzuekin jarraitutako Estatuaren politika baizik". Alderantziz ere funtzionatzen du formulak: "Politika beste bitarteko batzuekin jarraitutako gerra da", Foucaulten hitzetan esanda. Azken hitza ere Foucault emango diogu: "Herrestan garamatzen eta determinatzen gaituen historikotasuna gerrazkoa da".

**JOXE MANUEL ODRIOZOLA, euskaltzalea**

Hiperkonektibitatearen esklabu bagara ere, badago kontrako norabidea hartzen doan joera. Konektibiterik gabeko telefonoak, telefono tontoak, SMSak eta deitu nazatela... Horiek %30 igo dira. Jendea pribatutasunik ez duela konturatzen ari delako, momentuaz ez delako ingurukoekin gozatzen. Hemendik gutxira modan jarriko da inork ez jakitea zure bizitzaz Internetez, Internet aurreko garaira bueltatuko gara pribatutasunaren arloan, eta inork ez du jakingo non zauden eta zer egiten duzun. %30eko kopuru horrek gizartea aldatzen doala adierazten du, nahiz eta prozesua geldoa izan.

**CRISTINA ARANDA, teknologia aholkularia**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OROLGI** → Goroldioa, gaztelerazko 'musgo'. "Mendira juan, eta orolgi bigunian etzinda luze-luze, orduak emoten nituan".

**ORRAZTU BAT EMON** → Gauzak argi eta garbi ipini, esan. 'Poner los puntos sobre las íes'. "Orraztu eder bat emon detsazu guzurti anpor horri".

# 1969

## Meloi-saltzailea

Plazaolaren argazki honetan ikusten den gizonak meloiak saltzeko postua izan zuen Errebalen, lehengo merkatu plazaren aldamenean.



## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 3</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ZAPATUA 4</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>DOMEKA 5</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 6</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>MARTITZENA 7</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>EGUAZTENA 8</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 9</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 10</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>GAUEZ BETI</b> , 2023an, <b>Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Juana Aranzabal Leturia**. 90 urte. 2023-10-25.
- **Maria Pilar Arregi Salsamendi**. 93 urte. 2023-10-26.
- **Maria Luisa Pintos Zinkunegi**. 90 urte. 2023-10-26.
- **Maria Nieves Uranga Uranga**. 85 urte. 2023-10-31.
- **Antonia Aranzeta Izagirre**. 93 urte. 2023-10-31.



## Primerako eguna pasatu zuten 1958. urtean jaiotakoek

Zapatuan ospatu zuten kintada-jaia eibartar hauek eta ederki, oso gustora ibili ziren, eguerdian hasitako ospakizuna gauera arte luzatu zuten eta.



## Arrateko Andra Marin ikasi zuten lagunen bazkaria

Iazko urrian egindako kintadan aspaldiko lagunetako asko elkartu eta gero, Arrateko Andra Mari eskolan 80ko hamarkadan ikasi zuen talde honek bigarrenez antolatu du klaseko lagun bazkaria.

## Elizaren sexu abusuen ikerketan San Andres elizan gertatutako kasu bat antzeman dute

Espainiako Herri defendatzaileak eliza katolikoaren baitan gertatutako sexu abusuei buruzko txostena aurkeztu zuen barixakuan. Ikerketak sexu abusuen auzia “arazo larria” dela berretsi du. Gaia 779 orritan landu dute eta, gero, sexu

abusuak non gertatu diren zehaztu dituzte eranskin batean. Bertan, Eibarko San Andres parrokiari gertatutako sexu abusuen kasu bat jasotzen da, ikerketarako erabili dituzten hiru iturrietako bik berretsita.

## Errigoraren “10 urte bete-bete” saskiak hilaren 9ra arte eskatu daitezke

Errigorak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak zozketa berezia antolatu dute: gure irakurleen artean Errigoraren hiru saski, eta Lakarren (Nafarroa) ardo ekologikoak ekoizten dituen Lezaun upategirako bisita (otsailaren 25ean egingo da) eta bazkaria zozketatuko ditugu. Azaroaren 6ra arteko (12:00ak arte) epea dago zozketan parte-hartzeko, [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunean sartu eta izena emanda. Bestalde, Errigorak 10 urte bete dituela-eta, kanpaina berezia ipini du martxan: “Hasieran bezala, 50 eurotako saski bakarra eskaintzen dugu, 23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzionalak nahasian”. Saldutako saski bakoitzaren balioaren %25 euskalgintzara bideratuko da. Azaroaren 9ra arte eska daitezke saskiak, [errigora.eus](http://errigora.eus) webgunean.



## Hasi da neguko ordutegia Ipurua kiroldegian

Eguaztenaz geroztik eta 2024ko martxoaren 31ra arte, neguko ordutegia egongo da indarrean Ipurua kiroldegian. Horrela, domeka eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte instalazioak.



## Domekan zuhaitzak landatzeko herritarren laguntza eskatu dute

Eibarko Baso Biziak elkarteak zuhaitz-landaketa antolatu du domekarako, Eibarko Udalaren, Sorraluzeko Baso Biziak-en eta Lurgaiaren laguntzarekin. Bertoko zuhaitzen landaketa Eibarko lurretan egingo da, Santutxun, eta azaldu dutenez, “jende askoren laguntza beharko dugu, zuhaixka asko landatu nahi ditugu-eta”. . Izena ematea beharrezkoa da ([info@lurgaia.org](mailto:info@lurgaia.org) helbidera mezua bidali behar da, izen-abizenak, adina eta telefono zenbaki bat adierazita). Domekan, 09:30ean elkartuko dira, Ipuruako Eroskiko aparkalekuan.



## Euskeraz Primeran! mailakatzeko bisitak egiten dihardu ...eta kitto!-ko teknikariak

Euskararen erabilera sustatzeko asmoz, aspalditik dihardute lan-kidetzan Eibarko Dendarien Elkarte, Gipuzkoako Merkataria Federazioa, Eibar Merkataritza Gune Irekia, Eibarko Udala eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak, eta horretarako hainbat programa eta ziurtagiri daude: “Eibarren aski ezaguna da Euskeraz Primeran! eta, orain, euskararen erabiltzeko gaitasuna identifikatzeko marka bateratua sortu dute Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak:

Euskaraz barra-barra”. Gure herriak ere bat egin du marka berriarekin, eta bateragarria izango da lehenagotik erabiltzen denarekin: “2024ra begira, Euskeraz Primeran!-ek mailaketa bat egingo du eta, gaur egungo oinarrizkoak gain (beltza), zilarrezko eta urrezko markak ere izango ditugu, erabile-raren araberakoak”. ...eta kitto!-ko Ane Lizarralde teknikariak marka bien inguruko xehetasunak ematen dihardu aurreko astetik eta, horrez gain, euskararen erabilerari lotutako datuak jasotzen ari da.



<b>FUNEUSKADI</b> Euskarazko	<b>FUNERARIA MUGICA</b> Funeraria
<b>TANATORIO EIBAR</b>	<b>TANATORIO FUNERARIO EIBAR</b>
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a>	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Eidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	



Mapa baliagarria da, besteak beste, kontsumo-aukeren garrantziari eta horiek ingurumenean eta justizia sozialean duten eraginari buruzko kontzientzia areagotzeko. EGOAIZIA

## Eibarren arduraz kontsumitu ahal izateko mapa berria sortu dute

Egoaizia GKEak *Eibar Eraldatu* izeneko ekimena abiatu du, “Eibarren bizi direnen eta bisitarien kontsumo jasangarriaren inguruko kontzientzia sustatzeko asmoz”. Izan ere, mapa digital hau saltokien eta zerbitzuen irudikapen geografiko hutsa baino gehiago dela nabarmendu nahi dute Egoaiziatik.

Ekimenaren arduradunen berbertan, mapak “ekonomia solidario, zirkular eta alternatiboarekin bat datozen ekintzaitza eta alternatiba ekonomikoen ikuspegi osoa eskaintzen du. Produktu lokalak eta ekologikoak sustatzen dituzten dendetatik hasi, eta gizarte- eta ingurumen-justizia nabarmentzen duten zerbitzuetaraino, mapa hau gida baliotsua da komunitateari ekarpen positiboa egin nahi diotenentzat”.

**Tokian tokiko ekonomia eta ekoizleak babesteaz gain, kontsumitzaile eta saltzaileen arteko konexioak indartzeko tresna egokia da mapa**

Tresna erabiltzeko, herritarrek “Eibar Eraldatu” idatzi beharko dute Interneteko bilatzailean, eta egoaizia.org helbidearen ondoan agertuko den estekan klik egin. Hortik kontsumo kontzienteko aukeren mundu batera sartu ahal izango dira. Argi laga nahi dute Eibarko edozein saltoki edo zerbitzu ezin dela ekimen honen parte izan, baldintza batzuk betetzen ez baditu: “Eibarren kontsumo arduratsua-ren mapan parte hartu nahi duten saltokiek irizpide jakin batzuk bete behar dituzte, ekimen honek sustatzen dituen iraunkortasun- eta ekitate-balioekin koherenteak direla ziurtatzeko”.

### Parte hartu ahal izateko irizpideak

Horretarako, hamalau irizpiderekin zerrenda osatu dute arduradunek, eta ekimenarekin bat egin nahi duen denda edo saltokiak gutxienez horietako bat bete beharko du ezinbestean. Zerrendan lehen artisautea da: “Artisau moduan sortutako produktuei dagokionez, eta horrek lanbide tradizionalak mantentzea eta sustatzea, sormena eta kultura sustatzea eskatzen du”. Tokikoari garrantzi handia ematen diote eta, horregatik, produktuak tokiko ekonomiako eragileek ekoizti, banatu eta saldu behar dituzte, 80 kilometrotik beherako distantziara. Eta, aipatutakoekin batera, berdintasuna, finantza etikoak, bidezko merkataritza, trukea, hezkuntza, kultura, energia, ingurumena, ekonomia solidarioa, berrerabilera ekologikoa eta software librea lehenesten dituzte.

Informazio gehiago ekimenaren webgunean:







1963. urteko abuztuko uholdeak sortutako kalteei buruz dihardu Rafael Osorok. Abuztuaren 15ean oporrak hartzerik ez zuten izan urte hartan.

Argazkian ikusten den moduan, 1988ko uztailean ere uholde handiak gertatu ziren Eibarren. Ondoren, obra handiak egin ziren Ego ibaia bideratzeko, eta baita erreka batzuetan ere. EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

## 1963. urteko uholdea kontatzen

**Rafael Osoro Alberdi**  
(1929 – 2022)



Osintxuko *Ontzola* (Oronsola) baserrian jaio zen 1932. urteko urriaren 24an. Aita ere baserrian bertan jaioa zen; ama, aldiz, Elgoibarkoa zen. Hamaika senidetan bosgarrena zen Rafael. Bederatzi urterekin hasi eta hamabi urte bete bitartean Osintxuko eskolan egin zituen oinarrizko ikasketak. Pare bat urtez morroi egon ostean, Soraluzeke Eugenio Argarate torlojugintzako fabrikari hasi zen lanean. Hamalau urte zituen orduan. Soldadutza amaitu eta Eibarko Ayra Durex lantegian sartu zen eta, erretiroa hartu arte, bertan jardun zuen lanean.

## Rafael Osorori grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Erreka ere gertu, azpian zeneukaten, eta inoiz ezer gertatu zen?] Bai, bai, bai, ni ezkondu nintzan urtian, el año 63. Zan, gaiñera, agostua zan, agostuaren 6xa, akordatzen naizenez. Negoziuak itxi egin zittuen. Eurixak demasak eta, aiba Dios! Erreka azpian, holan, ta zulo bat, ta poste bat eguan, ta irtetzen zuen ta jo-ta, tetxoraiño igotzen zan! Raaaaaa! Aiba Dios! Ta, gero, kalia zeguan paretia be bultza... ta ura taillarrera. Aiba Dios! Trenbidia, salidia zeguan, komedorera igoteko eskillaria ta, hara urten genduan danok! Makina danak tapauta, urakin, bai. Ta, gero, agostuan bakaziñuak izaten ziran, agostuan 15ian bakaziñuak izaten ziran, ta bakaziñorik ez genduan hartu urte haretan, taillarra garbitzen ibilli, tamotorrak danak bustitta...

# Jon Etxaberi azken agurra

BIDEOA



Uztaileko azken egunean laga gintuen Jon Etxabek, euskal gizarteari asko eman ondoren. Altzolan jaioa, arrasto handia laga zuen Eibarren, hemen egin baitzituen bere bizitzako urte asko. Apaiz heldu zen gurera, baina bere bizitzak buelta asko eman zituen eta, besteak beste, ...eta kitto! Euskara Elkartearen sorreran partaide izan zen. Orain, azaroan zehar, bera gogoratzeko zenbait ekintza antolatu ditu Eibarko Memoria Taldeak.

**J**osu Ibagutxi Eibarko Memoria Taldeko kideak gertutik ezagutzen zuen Jon Etxabe. Kartzelako lagun izan zuen, eta bizitzako laguna izan da gerora, Memoria Taldean elkarrekin ibili direlarik. Ibagutxik maitasunez gogoratzen du Etxabe, “asko maite genuen gizona zen”, bere berbetan, eta maitasun horrekin dihardute prestatzen bere omenezko ekintzak.

Hilaren 18an, zapatua, Etxabe omentzeko ekitaldia egingo dute Errebal Plazan, baina aurretik berarekin zerikusia duten bi dokumental emango dituzte Portalean: ‘Karpeta urdinak’ eta ‘Apaiz kartzela’. “Hilaren 13an ‘Karpeta urdinak’ emango dugu. Torturari buruzko sekulako dokumentala da eta Jon oso torturatua izan zen”, esan digu Ibagutxik. “Dokumentala 1960tik 2014raino gertatutako torturei buruz Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketan oinarritzen da. 4.133 torturatu egon zirela argitu zuen ikerketak eta euren testigantzak agertzen ziren, tartean Etxabere-



Eibar, 1977ko apirila. Amnistiaren Legea onartu ondoren, kartzelatik irten eta egindako harreraren irudia. Jonekin batera, Enrike Gesalaga eibartarra.

nak. Gaur egun, oster, badakigu 5.400 torturatu inguru egon direla, eta hori izebergaren punta besterik ez da, 10.000tik gora izan daitezkeelako”, Ibartxiren berbetan.

Bestalde, Ritxi Lizartzak zuzenduriko ‘Apaiz kartzela’ dokumentalak Zamorako kartzela du ardatz. Munduko apaiz-kartzela bakarra izan zen Zamorakoa eta Etxabek zazpi urte egin zituen bertan. Hori hilaren 16an egongo da ikusgai.

Errebalgo ekitaldia Jon Etxaberi azken agurra emateko aprobetxatu nahi dute eta zerbait berezia prestatzen dihardute. “Argazki handi bat jarriko dugu, lora-sortak, bertsolariak egongo dira (Xabier Amuriza etorriko da seguruenik, Jonekin Zamorako kartzelan egon zena), abeslariak ere...”, azaldu digu Ibartxik. “Elgoibarko, Etxarri Aranatzeko (urte asko egin zituen han bizitzen) eta hainbat tokitako jendea etorriko da”, zehaztu digu, Etxabek laga duen arrasto handiaren seinale.

### Apaiz errebeldea

Dokumental bietan Etxaberen bizitzako une nabarmen bi azalduko dira, baina bere bizitzak pelikula bat egiteko balio dezake. Esan bezala, Altzolan jaio zen, Mispillibar etxean. 13 urterekin seminarioan sartu zen, ondoren Saturraran, Gasteiz eta Donostiako apaiztegiak ezagutzeko, eta 1950eko hamarkada amaieran, apaiz sartu zenean, Eskoriatzako Marin auzoan bost urte egin zituen. Gero, Azitainera etorri zen eta bertako abadea zela hasi zen ETako kide batzuei laguntzen.



Etxarri, 2013. Bertan jasotako omenaldi eta agurraren irudia. Maria Luisa Ruiz Arana bikotekidearekin.

**>>> Hilaren 13an eta 16an bi dokumental emango dituzte, eta 18an Etxabe omentzeko ekitaldia egingo dute Errebalen**

1969an Mogrovejon atxilotu zuten, eta Zamorako kartzelan sartu eta Burgosko auzian epaitu zuten. “Zamorako landan” liburuan kartzelako urteak gogoratzen ditu eta Burgosko auziaren 50. urteurrena gogoratzeko ekitaldia egin genuenean, berba egiteko nahiko panggal zegoenez, memoria batzuk idazteko gonbitea egin nion eta bertan azaltzen du zergatik egin zen ETakide. Apaiza izanik, bere kontraesan guztiak azaltzen dira bertan, besteak beste”, diosku Ibartxik.



Josu Ibagutxi Eibarko Memoria Taldeko kideak harreman estua zuen Jon Etxabekin.



Etxabe ez zen Burgosko auzian egon zen apaiz bakarra, Julen Kartzada ere bertan zelako. "Auzi horretan apaiz bi egon izanak eragin handia izan zuen. Obispoak, kardinalak eta horiek frankismoarekin lerrokatuta zeuden, baina elizaren militante batzuk frankismoaren aurrean errebeldeak izan ziren eta sufritu ere egin zuten. Adibidez, 1968an, Derioko seminarioan 300 apaiz inguru entzerratu zituzten Francoren aurrean protesta egiteagatik, Zamorako kartzelatik estatu osoko 60 apaiz baino gehiago pasa ziren... Sekulako motinak eta protestak egin zituzten Zamorako kartzelan", Ibagutxik dioenez.

#### **Euskara, presoen eskubideak eta literatura**

Kartzelako urteak eta apaizgoa laga ondoren, euskara irakasle hasi zen eskola publikoan, eta hor ere bere ideiegatik borrokan jardun zuen D eredua lortzeko, 60 urterekin erretiroa hartu zuen arte. Euska-

**>>> "Karpeta urdinak torturari buruzko sekulako dokumentala da eta Jon oso torturatua izan zen"**

**>>> "Apaiz kartzela dokumentalak Zamorako kartzela du ardatz, munduko apaiz-kartzela bakarra"**

rren aldeko borroka horretan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen sorreran ere partaide izan zen.

Politikaren arloa ez zuen albo batera laga eta, ETaren VI. biltzarren ondotik, Liga Komunista Iraultzaileko kide egin zen. Azken urteetan euskal presoen eskubideen alde jardun zuen eta Eibarko Memoria Taldeko kidea zen. Horrela, 2014ko otsailean, Maria Servini epaile argentinarraren aurrean deklaratu zuen, frankismoaren aurkako kereilan, eta jasan zituen torturen berri eman zion, besteak beste.

Hori guztia gutxi balitz, jubilatuz zenean irakurtzeari eta idazteari ekin zion, eibar.org atarian zuen txokoan aipatzen zuen bezala, eta hainbat sari jaso zituen bere idatziengatik. Ia azken unera arte jarraitu zuen idazten eta horren erakusle da bere blogean Normandiara egindako bisitaren azken kontakizuna. Orain atseden hartu du, baina maite dutenek bere figura gogoratuko dute azaroan zehar.

[www.larragestinmobiliaria.net](http://www.larragestinmobiliaria.net)

**Untzaga ingurua 259.000 €**

 72 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea. Guztiz berriua.

**Fermin Calbeton 270.000 €**

 76 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, egongela-sukalde amerikarra. Berritu berria.

**Aldatze ingurua 263.000 €**

 65 m<sup>2</sup>. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Oso argitsua. Garajearekin.

**Amaña ingurua 115.000 €**

 66 m<sup>2</sup>. 2 logela, komuna, egongela, sukaldea, komuna. Kanpora begira. Argitsua.

**J. Gisasola ingurua 197.000 €**

 80 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, 2 balkoi. Kanpora begira. Argitsua. Berrizteko.

**Urkizu ingurua 380.000 €**

 78 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. 44 m<sup>2</sup>ko terraza. Guztiz kanpora begira.

**Errebal ingurua 239.000 €**

 96 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Oso egoera onean. Bizitzera sartzeko moduan.

**Bidebarrieta 186.000 €**

 110 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea, balkoi. Aukera asko eskaintzen ditu. Berrizteko.

**Urki ingurua 165.000 €**

2 logela, komuna, egongela-sukalde amerikarra. Berritu berria. Kanpora begira.


**Mekola 395.000 €**

 75 m<sup>2</sup>. Eraikin berria. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. 30 m<sup>2</sup>ko terraza.

**T. Etxebarria ingurua 250.000 €**

 100 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Kanpora begira. Egoera onean.

**T. Etxebarria ingurua 225.000 €**

 100 m<sup>2</sup>. Aukera asko eskaintzen ditu. Berrizteko. Erdigunean.

**Ipurua ingurua 97.000 €**

 56 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, egongela-sukalde amerikarra. Berrizteko. Argitsua. Kanpora begira.

**F. Calbeton ingurua 269.000 €**

 94 m<sup>2</sup>. Duplexa. 2 logela, 3 komun, egongela, sukaldea, balkoi. Oso egoera onean.

**Iñar-kale ingurua 189.000 €**

 63 m<sup>2</sup>. 2 logela, komuna, sukalde-jangela, balkoi. Guztiz berriututa.

**San Juan 275.000 €**

 170 m<sup>2</sup>. Berrizteko. Aukera asko eskaintzen ditu.



# Gastronomia, Debabarreneko altxorrak ezagutzeko aitzaki



Tripontziak egitasmoak 10 urte beteko ditu aurten eta, data berezia ospatzeko, hasiera berezia eman zioten Errebal Plazan egindako dastaketarekin. Orain, gaurtik aurrera eta hilaren 26ra arte, eskualdeko hainbat jatetxetan menu berezietz gozatzeko aukera egongo da, hau da, Tripontziak menuez. Horrela, 35 euro ordainduta, bertako eta sasoiko produktuez egindako jakiak dastatu ahal izango ditugu Debabarreneko sukaldari trebeen eskutik. Baina hori ez da Tripontziaken barruan egingo den ekintza bakarra.

Informazio gehiago



**D**ebelesa Garapen Agentziak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak jarri zuten martxan Tripontziak ekimena orain dela 10 urte. “Eskualdeko jatetxeak balioan jarri nahi genituen”, esan digu Aitziber Cortazar Debelesako Turismo saileko arduradunak. Gainera, zenbait behar asetu nahi zituzten. “Orain ez hainbeste, baina lehen azaroa hilabete eskasa izaten zen jatetxeentzat”, eta horregatik erabaki zuten Tripontziak azaroan egitea. Gainera, turismoaren aldetik posizionatzeko balio izatea espero zuten.

Tripontziak egitasmoak 10 urte betetzen dituen honetan, harrera ona izan duela esan daiteke (iaz 2.500 menu inguru eman zituzten jatetxeek) eta urteroko egitarauan ondo egonkortuta dagoen ekimena da. Are gehiago, azken bi urteetan beste dimentsio bat hartu du, eskualdeko hainbat tokitara egiten diren bisita gidatuekin. “Debabarrean dugun eskaintza ezagutzera emateko antolatzen ditugu bisita gidatuak. Hau da, urtean zehar egin daitezkeen ekintzak dira, ez zerbait artifiziale Tripontziaken barruan bakarrik sartzeko”, Cortazarren berbetan.

## Bisita gidatuak

Guztira, bederatzi bisita gidatu eskainiko dituzte bihartik hasita. Ordena kronologikoari jarraituz, lehen bisita Chocolates de Mendaro fabrikara egingo da, bihar, 11:00etan. Bisitariet ia 200 urte inguru dituen fabrika ezagutu ahal izango dute, baina dagoeneko ez dago plaza librerik, bete egin delako.

Biharko beste bisita Azitaingo Oinarrizko Lanbide Heziketako Institutura egingo da. “Hau bai da bisita berezia, ez baita normalean egiten den

gauza bat”, Cortazarrek dionez. Bertan, sukaldaritza ikasleen sorkuntzak dastatu ahal izango dira. “Eurak dira eskualdeko gastronomiaren etorkizuna, eta aukera ederra da bertan egiten dutena ezagutzeko”, gehitu du. Oraindik izena eman daiteke (eskuineko irudian azaltzen da izena nola eman), beraz, 12:00etatik 14:00etara jaki gozoez gozatzeko aukera izango duzue.

Eguenean, hilaren 9an, Mutrikuko Arrietakua Jauregia bisitatzeko aukera egongo da. “Normalean, asteburuetako ekintzek oso ondo funtzionatzen dute, baina asteko egunetan zerbait antolatu nahi izan dugu eta horregatik prestatu ditugu ekintza batzuk egunetan”, azaldu digu Cortazarrek. Arrietakua Jauregia XVIII. mendekoa da eta Euskal Kostaldearen itsas historian murgiltzeko aukera ematen du.

Azaroaren 11n bi bisita egongo dira. Bata, 11:00etatik 12:30era, Mutrikuko Goienetxe Gaztandegira. Bertan, artzai gaztaren sekretuak ezagutu ahal izango dira artaldea bisitatu, gazta nola egiten den ezagutu eta dastaketa txiki bat eginez. Bigarren bisita ere Mutrikun egongo da, baina Merkatu Txikian. Izan ere, 12:00etatik 14:00etara, Lumagorri oilasko eta txokolata-dastaketa egongo da.

Hilaren 16an, eguena, Eibarko Armagintzaren Museoa bisitatzeko aukera emango dute 12:00etatik 13:15era. “Toki zoragarria da eta jende askok ez du ezagutzen”, diosku Cortazarrek.

Azaroaren 18ko ekintzan parte hartu nahi izanez gero, azkar ibili, plaza gutxi geratzen baitira. Izan ere, 11:00etatik 12:30era Lasturren egongo den talo-taile-rra egiteko gogotsu dago jendea.

Eguenetako azken ekintza hilaren 23an egongo da, Debako Santa Maria eliza ezagutzeko. Bisita 12:00etatik 13:30era egongo da eta Debako alde zaharraren erdi-erdian dagoen gotikoko altzorra ezagutu ahal izango da. Bisita horretan, eliz atari polikromatu bikaina eta Gipuzkoako klaustro zaharrena ikusiko dituzte parte-hartzaileek.

Azken bisita azaroaren 26an egongo da Lizagarar Sagartokira, 11:30etik 13:00etara. Sagarrak eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutzeko balioko du eta, horretarako, sagastian eta upeltegian barneratuko dira. Ondoren, Lizagararren produktuak dastatzeko aukera egongo da.



->>> <<<-

**Debabarrena, dena eskura!**

Ekimenaren barruan, bisita gastronomiko eta kulturetan parte hartzeko aukera izango duzu. Ez geratu lekurik gabe, eta prestatu zure Tripontzak plan!

**¡Debabarrena, todo a un paso!**

Dentro de la iniciativa tienes la oportunidad de participar en visitas gastronómicas y culturales. No te quedas sin sitio y prepara tu plan Tripontzak!

**Izen Ematea / Inscripción**

Tel. 943 82 0110  
turismo@debagesa.es

Ast-Ostir, 09:00 - 15:00 Lu-Vie,  
Plazak agortu arte / Hasta agotar plazas  
4 izen emate pertsonala / 4 inscripciones por persona

**Doan / Gratis**

## Hilabetean zehar egongo diren bederatzi bisitetatik bi Eibarren egongo dira



Gastronomiarekin lotuta, eskualdean ditugun aukerak ezagutzeko bisita gidatuak egongo dituzte bihartik aurrera.

# Erakusketa bateko koadroak musikaren erritmora ikusteko gonbidapena

Kontzertu berezia emango du bihar Andres de Egiguren orkestrak, Coliseo antzokian, 19:00etan. Pedro Palacinek zuzentzen duen orkestrako musikoekin batera, Eibar eta inguruko artista talde bat arituko da oraingo honetan. Horrela, bertan izango dira Maite Lorenzo eta Juanma Cano aktoreak, Eva Rivera dantzaria, Esteban Oroz margolaria eta Iñigo Santacana eszena zuzendaria, guztiak Pedro Palacinen zuzendaritzapean. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin) eta aldez aurretik erosteko aukera dago, gaur Coliseoko leihatilan, 17:30etik 19:30era edo, bestela, online, Kutxabank-en bitartez.

**B**iharko kontzertuan ikusiko dena erabat berria izango da. Ideia Pedro Palacinek orkestra zuzendariari bururatu zitzaion eta, esan digunez, “orain arte ez da horrelakorik egin. Normalean, musika eszenaren eta antzezpeneren zerbitzura egoten da, baina, kasu honetan, alderantziz izango da. Eszenatokian arituko diren aktoreak, dantzaria eta eszena bera, musikaren zerbitzura egongo dira. Behingoagatik, artista hauen lana orkestrak interpretatzen duen musikaren menpe egongo da”.

Egitaraua honako hauek osatuko dute: Modest Mussorgskyren *Cuadros de una exposición*, Pattersonen *Arreglo para cuerdas*, Isaac Albenizen *Asturias-Leyenda*, Pedro Palacinen soketarako konponketa, eta Peter I. Tschaiikovskyren *Cuarto movimiento de Serenata para cuerdas op 48*.

Palacinek azaldu digunez, “Mussorgskyren lagun handia zen Victor Hartmann arkitekto eta mar-

golariaren bat-bateko heriotzak eragindako zirrara handiaren ondoren konposatu zen *Erakusketa bateko koadroak* izenburukoa”. Palacinek azaldu digunez, “berez, ez dago inon jasota Mussorgskyk konposizioaren oinarri izan zituen koadro guztiak ikusi zituen, ala bakarrik zirriborro batzuk ikusi ahal izan zituen”. Edozein modutan, Esteban Oroz margolariak konposizioaren oinarria diren koadroak, dozena bat inguru, margotu ditu, “horietako bakoitzaren izenburua ulertzen laguntzeko, eta, era berean, ikusleei erakusketa batean daudela sentiarazteko”. Hori baita Iñigo Santacana eszena zuzendariaren asmoa: “Publikoari erakusketa bat bisitatzen ari dela sentiarazi nahi diogu, hori da ideia”. Eta hori lortzeko, ezinbestekoa izango da Maite Lorenzo eta Juanma Cano aktoreen lana: bata, arte eta pintura kontuez ezer gutxi dakien turista izango da, eta bestea erakusketa horretako galerista sasi-jakintsua. Bi aktoreek gidari-



## Andres de Eiguren Orkestrako 21 musikari profesional arituko dira bihar, Pedro Palacin zuzendariaren esanetara

lanak egingo dituzte, “publikoa erakusketara gerturatuta, koadro bakoitzaren esanahia eta inspiratu zuen musika-konposizioa hobeto ulertzeko”.

*Asturias-Leyenda* lana, bestalde, Ignacio Zuloagaren lagun handia izan zen Isaac Albenizek konposatu zuen. Bere kalitateagatik oso ezaguna den pieza horretan Eva Rivera arituko da dantzan.

Bihar aurkeztuko duten kontzertuko egitaraua biribiltzeko, Peter I. Tschaikovskyren *Cuarto movimiento de Serenata para cuerdas op 48* lana interpretatuko dute: “Bi konpositoreen jaioterrira, pinturarekin oso harreman estua duen San Petersburgora joan-etorriko bidaia bat da, eta tarteko pieza Zuloagaren lagun handia izan zen Albenizena da”, dio Palacinek.

Orkestra zuzendariaren berbetan, “kontzertu hori Ignacio Zuloaga omentzeko esku artean erabili genuen aukeretako bat zen, 2020an, haren heriotzaren 150. urteurrenean, baina COVID-19aren



Bihar Coliseo antzokian estreinatuko duten kontzertua haur zein helduentzat aproposa da eta, artisten parte-hartzeari esker, inor ez dela aspertuko ziurtatu digute protagonistek.

### Orkestraren musikari lagunduko dioten artistek balio erantsia emango diote kontzertuari, inoiz ikusi bariko emanaldia aurkezteko

pandemiak dena bertan behera laga behar izatea eragin zuen”. Zorionez, gaur egungo egoera oso bestelakoa da eta, horrela, ekitaldi hau, harizko orkestra-plantilla zabalagoarekin, eta aipatutako artisten lankidetzarekin aberastuta planteatu dute: “Artisten erantzuna zoragarria izan da, guztiek baietz esan eta, gainera, pozarren ari dira lanean, biharko estreinaldirako prestatzen. Eta orkestrako kideak ere gogotsu daude, 21 musikari inguru izango dira, denak profesionalak eta oso onak”.

# Lehenengo eibartarra Hiru Handietan

Hiru Handiak du izena 1987tik Gasteizko Manuel Iradier Txango Elkartek bi urtetik behin antolatzen duen mendi-probak. EAEko hiru mendi handienak dira bertako protagonista: Gorbeia (1.481 metro), Anboto (1.331 metro) eta Aizkorri (1.523 metro). Mendiko ultra trailer hori Gorbeia, Urkiola eta Aratz-Aizkorriko parke naturaletatik zehar jokutzen da. Guztira 101 kilometroko ibilbidea bete behar izaten dute parte-hartzaileek, 10 kilometroko desnibela gaindituz. 24 ordutan egin beharreko lana dute irteeran egoten diren atletak.



**A**nder Egurrola izan dugu aurten euretako bat. 11 izan ziren Eibartik parte hartzera animatu zirenak, markatutako denbora-epetan helmugaratu zirenak zazpi izan baziren ere. Egurrola gure herriko lehenengoa izan zen Murgian hasi eta Araian amaitu zen lasterketan, bide erdia gauzez egin eta gero. “Gaueko 24:00etan hasi eta arratsaldeko 15:15ean amaitu nuen, nik aurreikusitako denporan” diosku berak.

Mila parte-hartzaile izan zituen aurtengo edizioak. Izena eman zutenak hiru mila izan baziren ere, “gero zozketa egin zuten horien guztien artean, kopurua derrigorrez txikitu behar zuten-eta”. Proban laguntzen diharduten boluntarioen kopurua ere ez da makala: “Bostehun lagunetik gora izango dira”. Egurrolarentzat bigarren aldia zen Hiru Handiak egiten saiatzen zena: “2016an izan nintzen, baina ez nuen amaitu. Or-

duan 1.800 laguneko taldea bildu ginen irteeran”, esaten digu Anderrek, “eta Otxandion amaitu zen orduko hura”.

Esanda bezala, “aurrez pentsatukoaren arabera garatu zen proba niretzat. Hasieran kalkulatu-tako denboran baino hobe ibili nintzen, eolikoan tartera heldu arte behintzat; gero, Aizkorriko jaitsiera nahiko luze egin zitzaidan”. Eguraldia ere lagun izan zuten parte-hartzaileek: “Aproposa izan zen. Behin Anboto jaitsita hasi zuten zertxobait, baina sirimiri ikutuarekin”.

**Frontalek egituratutako sugea**  
“Egun berean hiru probintziatik pasatzeak” ikutu berezia ematen dio probari, eibartarraren arabera. Baina ez horrek bakarrik: “Gaueko tartean, guztiok frontalarekin joaterakoan, argiek osatzen zuten sugearen forma hori zelan mugitzen den... Gero, behin Elgeara helduta, eolikoek ere beste modu

## Ander Egurrolak 15 ordu behar izan zituen 100 kilometro pasatxoko mendi lasterketa amaitzeko

batera janzten dute lasterketa: 78 dira, guztiak jarraian. Hortik aurrera txipa aldatu behar duzu. Eta Aizkorriko jaitisiera teknikoagoa da”. 24 ordutan heldu behar badira ere, helmuga zeharkatzen duten ordenak asko esan nahi du hurrengo baterako.

Fisikoki ondo prestatuta egoteaz aparte, horrelako proba luzeetan buruak ere ondo jardun behar du lanean. Baina zenbaterainoko pisua du lan berezi horrek? “Erdia baino gehiago, hori ziur. Hamabost ordutan gorabehera asko bizi izan dezakezulako. Nire kasuan, esaterako, Gorbeiaraino oso ondo joan nintzen; gero pixka bat estuago ere ibili nintzen bezala”. Eta hitz larriez jantziko lukeen gomendioa: “Gogoratu beti jateaz, goserik ez baduzu ere”. Entrenamenduari %30eko pisua ematen dio eibartarrak, “puntuazate behar-beharrezkoa bada ere”.

### Kalamuakoei eskertuta

2015ean hasi zuen bere ibilbidea arlo horretan Ander Egurrolak: “Kuadrillako lau hasi ginen aldi berean. Behobia-Donostia maratoi erdia abiapuntu hartuta, ondoren Gasteizen ere korritu nuen... Eta handik urtebetera mendiko lasterketak lehenetsi nituen, kilometroetan ere aurrera eginez: 75 kilometroko, 80ko eta... 100eko

probetaraino heltzeko”. Entrenamenduetan Kalamua Korrikalari Taldekoak izaten ditu lagun. “Euren aholkuak oso mesedegarriak egin zaizkit beti, badakite laguntzen”, dio eskertuta. Saio horietako gehienak Eibarren eta inguruan egiten ditu, “Pirinioetara gerturatu izan banaiz ere; baina hemen bost ordu behar baditut, hara joanda zortzi ere kentzen didate”. Hiru Handiak egin ondoren, baina, lasai hartu du kontua eta bi astetan geldirik egon da, ez gehiago.

Bere martxak jarraipena behar duelako. Eta denboraldiak luze jotzen duelako, abenduaren bueltan amaitzeko. Normalean intentsitatea igotzen joaten da Egurrola: “Astean zehar asfaltoan ibiltzen naiz gehienbat, asteburuetan mendira jotzeko. Bi egunetan gimnasioko lana ere izaten dut. Lehenengoko lasterketa maiatzean edo egiteko”. Non moldatzen den hobeto galdetuta, mendia gogokoago duela igartzen zaio. Aldeak ere nabariak dira: “Mendian oinez, korrika, trotetan... estilo desberdinetan jardun behar duzu; asfaltoan, kontrara, erritmo bat jarraitzen diozu”. Hala ere, Behobiako maratoi erdia bost aldiz egin du dagoeneko, eta badu maratoi bat ere bere hanketan.

Mendiko lasterketetan denetarik egin ditu: Goierriko Bi Handiak, 75 kilometroko Canfranc-Can-



Probaren erdia gauzez egin behar izan zuten parte-hartzaileek. Horrek bereziago bihurtzen ditu halako lasterketak.

franc, 40 miliako Domusateknik bitan, iraillean izaten diren Vall de Aran eta Valle de Tena, baita Beasaingo Marumurumendi eta Benasqueko Maraton de las Tucas mendi-maratoiak ere, 60 kilometroko Gasteizko Mendiak ere ez zaio arrotza egiten... “Aurten ere azken hori egiteko gogoia dut, batez ere hurrengorako dortsala lortzeko”. Argi dago prestaketa dotorea egiten duela Anderrek, behin maila horretara iritsita bere buruari eskatzen diona: Hiru Handiak egin aurretik ere, hor ibili zen “behin Landaraino gauzez joanda, zapatu batean Orixoleraino, beste batean Elgeako eolikoei bisita egiteko...”. Nekaezina bihurtzeraino.

## Gure herriko 11 atletek hartu zuten parte eta euretako zazpi heldu ziren Araiako helmugara

## Hodei Ezpeleta "Bihurri" azpitzapeldun Euskal Herriko Aizkolarien Txapelketan

Hodei Ezpeleta Eibarko aizkolaria ezin izan zion eutsi orain arte janzten zuen txapelari Domusantu Egunean Iruñeako Navarra Arenan jokaturako azken Euskal Herriko Aizkolarien Txapelari. Hala ere, Mendaron bizi den aizkolaria eibartarrak bigarren postuan amaitu zuen, lan bikaina egin eta Oier Kañamares hirugarrenari ia bost minutu aterata. Bihurrik 45 minutu eta 58 segundo behar izan zituen aurrean izan zuen lan gogorrarekin amaitzeko eta, faborito zen Iker

Vicente txapeldun berria aurretik izan bazuen ere, atzean laga zituen Kañamares, laugarren postuan sailkatu zen Julen Gabirondo, bosgarren geratu zen Joxean Etxeberria, eta azken tokian geratu zen Xuban Kañamares.

Sei aizkolariek aurrez kanporaketan egindako lan bikoitzari egin behar izan zioten aurre herenegun eguerdiko jardunean: hamabi enbor moztu zuten guztira, 54 ontzako, 60 ontzako eta 72 ontzako launa, hain zuzen ere.



## Eibar FT-k Real Madrid hartuko du bihar Ipuruan

Neurketa zailtasun handikoa izan go da Yerai Martinek prestatzen duen taldearentzat, Madrilgo taldea F Ligako sailkapeneko bigarren delako, Madrildekin berdinduta, Bartzelona ahalguztidunaren atzetik. Orain arte madrildarrek bost partidu irabazi dituzte eta bakararra galdu. Eibartarren kasua oso ezberdina da, jokaturako sei partiduetatik bakararra irabazi dutelako (etxetik kanpo gainera, Granadan) eta beste bat berdindu, Ipuruan jokatu zuten azkena, Villarrealen aurka.



E  
I  
B  
A  
R  
R  
E  
N

### SAN ANDRES

## bertso jaialdia

azaroak 24 / ostirala  
Coliseo antzokia / 20:00  
- sarreak egunean bertan salgai (8€) -



unai ilurriaga



maddalen arzallus



oihana barira



beñat gaztelumendi



jon mala



unai agirre

GARBIKAZULAK: JON MIKEL IZQUIERDO



## Pilota txapelketa nagusiko kaiolaren barruko finalerdia etzi Katedralean

Jaialdi bikaina prestatu du beste behin Aspe gure herriko enpresak Astelena frontoirako. Oraingo honetan jaialdiaren partidu nagusian lau eta erdiaren txapelketa nagusiko Jaka eta Altunaren arteko finalerdia izango da jokoan. Baiko eta Aspeko ordezkariak eskainiko duten lehiatik aparte, beste bi partiduek ere badute bakoitzak bere pizgarria: lehenengoan Re-

zusta eta Zabaleta atzelari handien zein baino zein borroka ikusi ahal izango da eta amaierakoan bigarren mailako onenetakoen arteko norgehiagoka izango da. Horrela, jaialdia hasteko, Zabala-Rezusta vs De la Fuente-Zabaleta partidua izango da 17:00etatik aurrera. Eta, jaialdia amaitzeko, honakoa jokatu da: Exposito-Arbizu vs Mata-Gaskue.

## Bidasoa Eibar Eskubaloia baino gehiago izan zen Euskal Kopako finalerdian

Domusantu Eguneko eguerdian Ipuruan jokatuak probintziako bi taldeen artekoan, Fernando Fernandezek mutilak azkenean makurtu egin behar izan ziren Asobal Ligako taldearen aurrean, gaur egun bi taldeen artean dagoen aldearen erakusgarri. Dena dela, hasieran indartsu ekin zioten eibartarrek partiduari eta lehenengo laurdenean eurek izan zuten ekimenaren gidaritzan, markagailuan 12-7 eta 14-9 aurreratuta. Hori bai, atsedendirako markagailua irauli eta irundarrak aurretik zirela joan

ziren aldageletara (18-27). Eibar Eskubaloia aldetik Puente izan zen goleatzaile nagusia, zazpi golekin, Torrego eta Moñuxen aurretik, bi horiek sei golekin; lau lortu zituzten Yarzak eta Blancok, eta hiru Eibarrek eta Valle jok. Irungo Bidasoarekin jokatu zuen Eibar Eskubaloitik irtendako Mikel Zabala hegalekoak sei gol sartu zituen. 500 lagunetik gora izan zen kiroldegian partidua ikusten eta giro berezia bizi izan zen bertan; Euskal Koparen finalerdia jokoan zela, Irungo zaletuak ere nabaritu ziren.

## Ettxeberriaren mutilak olatuari eusteko asmotan

Ligako azken zortzi partiduetatik zazpi irabazi eta bakarra berdinduta, eibartarrak bakarrik geratu dira sailkapeneko bigarren postuan eta, beraz, igoera zuzena emango liokeen tokian daude une honetan. Ligatik kanpo ere, Kopako lehen kanporaketan inoiz baino argiago egin dute aurrera, martitzenean Lorcarri 0-4 irabazita.

Gaur, bestalde, 21:00etan hasita, ikaragarritzko jauzia egiteko aukeraren aurrean egongo dira elgoibartarraren jokalaria, Espanyol handia bisitatuko baitute. Kataluniarrak eibartarrendik bi puntura daude une honetan, baina Fran Garagarza zuzendari teknikoa duen taldea 1. Mailara igotzeko hautagai nagusienetakoa da. Eibar FT, bestalde, momentu honetako dinamikari eusten ahaleginduko da, "Ipuruan azken urteotan ikusi ahal izan den partidu onenaren bidetik", horrela bataiatu dute eta azken jardunaldian Valladolideko taldeari 5-1 irabazitako partidua.



Eibar FT Bigarren Mailako talde goleatzaileena da gaur egun.



...eta hodei izugarriak artaldea txiki laga zuen. RAMON BEITIA



ASIER EZENARRO

## Exortzista: 50 urte

Orain dela 50 urte pelikula mitiko bat estreinatu zen: Konjuratzailea edo Exortzista. Bi urte lehenago William P. Blatty idazleak film hori oinarritutako eleberria idatzi zuen. Blattyk 1949. urtean egin zen konjuru baten berri izan zuen, eta hori erabili zuen bere kontaketa egiteko. Bere garaian filmean ikusten ziren irudiak oso gogorrak egin zitzairen askori eta, kronika batzuek diotenez, asko izan ziren zinema aretoetan zorabiatutakoak. Urte guztiotan denok ikusi dugu pelikula, Karras Aita eta Merrin Aita otoitzean eta Regan neskatoari ur bedeinkatua botatzen. Gure begietan geratu dira haren oihuak eta irainak. Eta gogoratzen ditut, baita Eibarren berriro pasatu zutenean, eszena horiek ikusterakoan gazteak zelako barreak egiten zituzten ere. Dena dela, pelikulak baditu elementu aipagarriak, edukiari zein bitxikeriei erreparatuz.

Filma Georgetown hirian gertatzen da eta hantxe dauka Jesusen Konpainiak Unibertsitate famatua. Merrin apaizaren paperean Max Von Sydow antzezle haundia aukeratu zuten, dirudienez, Teilhard de Chardin jesuita eta zientzialariarekin zuten antzarenegatik. Esaten zuten, gainera, obrak katolizismoaren alde "ilunena" eta "zaharkituena" erakusten zuela, hau da, deabruarekiko sinesmena eta erromatar erri tuaren eszenifikazioa. Beste gai batzuk ere agertzen dira, baina hartu dezagun deabruaren izatearena.

Existitzen al da? Izaki espirituala da deabrua? Zer esan nahi du horrek? Existitu al daiteke materiala ez den izakirik? Ba, galdera horiei erantzuteko Gustavo Bueno filosofoaren idazlanetara hurbildu gaitezke. "Exortzista" estreinatu baino urtebete lehenago Buenoren "Ensayos materialistas" argitaratu zuten, ikaragarrizko lana. Filosofian bi "korronte" haundi egon dira: "espiritualista" bata eta "materialista" bestea. Bueno bigarren korrontearen ordezkari haundienetarikoa izan zen, eta errealtate osoa hiru mailatan sailkatzen zuen. M1: hor gorputza duten errealtateak, solidoak bezala; eta gorputzik ez dutenak, uhin eletromagnetikoak kasu, daude. M2: hor gizakiaren proiektuak, oroimenak, minak, desioak, etabar egongo lirarteke. Eta M3: teorema batean agertzen diren erlazioak, Pitagorasen teoreman agertzen direnak bezalakoak kokatzen dira hor.

Eta hortik kanpo ez dago ezer. Gogoratzen dut ere nola orain dela urte batzuk, Coliseoan eskaini zituzten hitzaldi batzuk entzutera hurbildu nintzen eta zenbat irrazionaltasun entzun nituen, Annunaki eta OHEri buruzkoak. Lotsagarria horrelakoak entzutea oraindik. Ba aste honetan bertan, telebistan emandako berri batean ziotenez, azken aldian Tarot-ari eta antzerakoei galdetzen dietenak igo egin dira. Horrela dabilta batzuk. Gyorgy Lukacsen hitzak berreskuratuta: Arrazoinamenduari beste eraso bat.

**"Denok ikusi dugu pelikula, Regan neskatoari ur bedeinkatua botatzen. Gure begietan geratu dira haren oihuak eta irainak. Eibarren berriro pasatu zutenean, baita eszena horien aurrean gazteak zelako barreak egiten zituzten ere".**

## Goiz ederra pasa zuten Aquariumean ...eta kitto!-ren irteeran

Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako hamazazpi familia izan ziren zapatuan Donostiako Aquariumean, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eurentzat propio antolatutako irteeran. Autobus betea abiatu zen goizean goiz Eibartik, berrogeita hamar lagun guztira, heldu zein ume. Bisita gidatua zuten

zain Aquariumean eta, bi taldetan banatuta, Aquariumeko bizidunen gorabeherak ikusi eta entzun zituzten bertako gidariaren ahotik: marrazoak, marmokak, era guztietako arrainak... Gainera, denon sorpresarako, urpekariak ere ikusi zituzten uretan murgilduta arrainontzi erraldoiak garbitzen. Hurrengo ir-



teera abenduaren 6an izango da. Egun horretan Mari Domingi eta Olentzeroren etxea bisitatuko dute Legazpiko Mirandaolan. Bestalde, martitzenean, urriak 31, gaileta beldurgarri bezain gozoak egin zituzten bi egitasmoetako familiek Gaba Beltza ospatzeko. Hamasei ume elkartu ziren tailerlean eta, gurasoek lagunduta, gaileta zoragarriak egin eta jan zituzten.

## Barixakuak Jolasian Urkizun izango da gaur

Arratsaldeko 17:00etan hasi eta 18:00ak arte ...eta kitto! Euskara Elkartearen Barixakuak Jolasian ekimena Urkizuko parkean izango da, iturriaren aldean (euria egingo balu, Leonardoneko aterpean). Ohiturari jarraituz 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak egongo dira, doan. Aurreko barixakuan Torrekuako parkeak hartu zituen jolasok.



## Kalean da urriko Txikitto!

Aurreko astean banatu zuen ...eta kitto!-k herriko eskoletan Txikitto!-ren ikasturteko lehenengo alea. Edukiz lepo iritsi da urriko alea ere: besteak beste, Aldatze ikastetxe-koek klima-aldaketa hobeto ulertzeko egin dituzten esperimientuen berri eman digute, San Andres ikastetxeko bi ikaslek amamari egin diote elkarrizketa belaunaldien arteko desberdintasunak agerian uzteko eta, horrez gain, ez dira ohiko txiste, denborapasa eta ipuinik falta. Lehen Hezkuntza osoko ikasleek jasotzen dute Txikitto! hilabetekaria, eta 1.500 aletik gora banatzen dira guztira.





# ANE YESGA

CLÍNICA MEDICINA  
ESTÉTICA

**Mediku Estetikoa  
Zirujau Orokorra  
eta Digestio-Aparatua**

Arragüeta 2bis B, Entrepanta A  
623 003 251 info@draanevesga.com

[WWW.DRAANEVESGA.COM](http://WWW.DRAANEVESGA.COM)



## II. JARDUNALDIA: KOMUNIKAZIOA ETA GARDENTASUNA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

## II JORNADA DE COMUNICACIÓN Y TRANSPARENCIA EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

**Streaming bidez Eibarko Udaleren YouTube kanalean**  
Síguelo via streaming en el canal de YouTube del Ayuntamiento de Eibar

**Bartaratzeko lan-emateak - 2023ko urriaren 26tik azaroaren 16ra**  
Inscripciones para asistir presencialmente - Del 26 de octubre al 16 de noviembre de 2023  
[www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)

**Data:** 2023ko azaroak 23  
**Tokia:** Euzko Olinpiar Antzokia  
**Oraua:** 09:00 - 13:45

**Fecha:** 23 de noviembre de 2023  
**Lugar:** Teatro Coliseum de Eibar  
**Hora:** 09:00 - 13:45




#EibarKomunika

# LEHIAKETA!

- **ASTEKO SARIA:** COLISEORAKO EDO MUSEORAKO 2 SARRERA.
- **HILABETEKO SARIA\*:** 100€-KO EROSKETA-BONOA EIBARKO DENDETAN ERABILTZEKO.  
\*Azaroak 3, 10, 17 eta 24ko lehakertan parte hartu eta gehien astutu dituenarentzat (berdinak bada, zozketa bidez erango da)





**SARTU ONDORENGO ESTEKAN ETA ERANTZUN 3 GALDERAK:**








<https://labur.eus/astindu1>





# Altxor handiak formatu txikian erakusten dituen jaialdia



Asier Errasti Film Laburren Jaialdia 24. ediziora iritsiko da aurten, eta sasoi betean iritsi ere. Zinemagile eibartarra omentzen duen jaialdiak Euskal Herriko eta estatuko sortzaile handien lanak jasotzen ditu urtero, eta aurtengoan berdin jarraituko du. Horrela, hilaren 6tik 11ra, goimailako laburmetraiak ikusteko aukera izango dugu Coliseo antzokian.

**D**atorren astean 43 film labur ikusteko aukera izango dugu Asier Errasti jaialdian. Astelehenetik barixakura, 20:00etan, Coliseo antzokian, maila handiko lanak ibiliko dira Javier Agirresarobe saria jasotzeko lehia eta sari hori zapatuan banatuko dute, 19:30ean hasiko den sari banaketan. “Gala prestatzen ari gara eta, ohiko formatuari jarraituko diogun arren, musika sartzen saiatuko gara dinamikoagoa izateko”, Koldo Edorta Carranza jaialdiaren antolaketa ibiltzen den kidearen berbetan.

Egunero emango dituzten pelikulen programazioa orri honetan dagoen QR kodea eskaneatuz aurkitu dezakezue, baina ikusgai egongo diren lanak aipatu barik, egunero 8-9 film labur ikusi ahal izango direla esan dezakegu eta horietako bat, gutxienez, euskaraz izango dela. “Beti kostatzen zaigu gehiago euskarazko lanak ekartzea, baina urtero izaten ditugu ikusgai eta gutxienez egunero bat euskaraz ematen saiatzen gara”, esan digu Carranzak.

Euskaraz eta Eibartik, Marina Perosanz eibartarraren ‘Muskil’ pelikula eguneko saioan ikusi ahal izango dugu. *Laburbira* euskarazko film laburren zirkuitu ibiltarirako aukeratua izan ondoren, Euskal Herriko hainbat herritan ikusi ahal izan da pelikula eta, orain, gurean izango dugu (bere pelikulakoak dira orri hauetan ikusten ditugun argazkiak).

Perosanzek Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasi du Mondragon Unibertsitatean eta unibertsitateko proiektu batetik sortu zuen filma. Hain zuzen ere, horrelako profil gehiago bilatzen dituzte Asier Errasti Film Laburren Jaialdian, “ikasleentzat demaseko pagotxa delako euren pelikulak horrelako jaialdian erakutsi ahal izatea. Eibartarrak badira,

Jaialdiaren programazioa



ia ziur aukeratuko ditugula eta posible da, gainera, saria eramatea”, Carranzaren ustez.

### Izen ezagunak

Pelikulak ekartzeko aurrean handia egin behar izaten dute antolatzaileek eta horretan eskarmentu handia du Carranzak. “Euskarazko lanak ekartzeko jaialdietan eta Durangoko Azokako Irudienean egoten gara, eta Kimuak bildumakoekin, euskal sortzaileekin, ekoizleekin eta abarrekin egon behar izaten naiz, lanak Eibarrera bidaltzeko eskatuz”, diosku. “Egia da, hala ere, momentuz jaialdian ez dugula dokumentalik sartzen eta, euskaraz egiten diren lan asko dokumentalak direnez, horrek mugatu egiten gaitu”, zehazten du.

Gauzak horrela, jaialdiko lan gehienak gaztelerazkoak dira, estatu osotik ekarritako lanekin. “Jaialdian 24. edizioa izanik, banaketa-etxe eta autore batzuek beti izaten gaituzte kontuan eta urtero-urtero bidaltzen dizkigute lanak. Beraz, zentzu horretan ez dugu arazorik izaten programazioa osatzeko. Nahiko egonkortuta dagoen jaialdia da”, Carranzaren iritziz. Horren erakusle dira urte hauetan zehar jaialditik pasa diren hainbat izen ezagun, bai zuzendari bai aktore aldetik: “Aurten, euskal sortzaileei begira adibidez, zuzendarien artean Nerea Torrijos (jantzi onenaren Goya sariaren irabazlea) eta Maider Oleaga ditugu, eta aktore moduan Miren Gaztañaga, Erika Olaizola eta beste hainbat aktore ezagun”.

### Lantalde parekidea

Plano Corto elkarte arduratzen da jaialdia antolatzeaz eta aurten jende gehiagoren laguntza jaso dutela esan digu Carranzak. “Hori izan da aurtengo berritasun nagusiena. Batzuk taldetik irten dira eta beste batzuk sartu. Hain zuzen ere, Juan Alday berriz itzultzeaz gain, bi neska berri sartu dira eta, beraz, emakumeak lantaldera erakartzea lortu dugu, guretzat gainditu gabeko irakasgaia zena”, diosku Carranzak.

Bere iritziz, horrek beste ikuspegi bat ematen dio jaialdiari eta bertan parte hartzeko aukeratuak izan diren pelikuletan nabari dela uste du. “Emakumeek sortutako lan gehiago ditugu aurten”, esan digu, programazioari gainbegirada botaz. “Lau lagun ibili dira filmen aukeraketa egiten eta parekidetasuna lortu dugu”.



## 43 film labur egongo dira ikusgai datorren astean, astelehenetik barixakura, eta zapatuan egingo da sari-banaketa



Marina Perosanz eibartarraren 'Muski' izeneko film laburra egongo da ikusgai Asier Errasti Film Laburren Jaialdan.



## Banatu dira On Ekin Sariak

Aurreko astean burutu zen Ekingune elkarteak antolatzen dituen On Ekin sarien hamaikagarren edizioa, Errebal Plazan. Ohiko photocallaren ondoren, Nagore Garcia Sanz aholkulariak hitzaldia eman zuen eta, jarraian, lehiaketara aurkeztutako 16 enpresa-idea eta proiektuak azaldu zituzten egileek, ekitaldira bertaratu ziren 60tik gora lagunen artean. Epaimahaikideek On Ekin 2023 Saria (2.000 euro) 'Senide' proiektuari ematea erabaki zuten, demenziak eta alzheimerria dutenei zuzendutako ChatBot zerbitzuarengatik. Ekitaldira joandakoan botuen bitartez aukeratzeko den Herritarren Saria, berriz, 'On Natura' ekimenari eman zioten, Debabarrenean izaera jasangarria duen turismorako proposamenarengatik. Sari hori 1.000 eurokoa da, 5 euro gehituta ekitaldian parte hartu zuten izen-emate bakoitzeko.



## Doako bisita gidatua egingo du Armagintzaren Museoa

Armagintzaren Museoa doako bisita gidatua antolatu du azaroaren 18rako, erakusketa iraunkorra ezagutzeko. Bi orduz daude: 17:00etan euskaraz arituko dira eta 18:30ean gazteleraz. Parte hartzeko izena aurretik eman behar da, 943 70 84 46 telefono zenbakira deituta edo museoa@eibar.eus helbidera mezua idatzita.



## Josemi Arranzek jaso du pintura-lehiaketako lehen

Domekan egin zen Udalak eta Eibarko Artisten Elkarteak urtero antolatzen duten Aire Zabaleko Pintura Lehiaketaren 46. edizioa, eta epaimahaikideek lehen saria Josemi Arranzi eman zioten, Ego Gain kaletik Untzaga plazara bitarteko kale-zatia erakusten duen koadroarengatik. Bigarren saria Eduardo Alsasua-rentzat izan da, hirugarrena Jokin Telleriarentzat, eta laugarrena Iker Mugarrarentzat.



## Baratzeren "Gorringoa eta onddoa" izan da pintxo onena

Baratze tabernak irabazi du Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Eibarko XIX. Pintxo Lehiaketa, *Gorringoa eta onddoa* pintxoarekin, "garaiko produktuen elaborazio eta teknikaren mailagatik". Bertako produktuekin egindako pintxo onenaren saria, berriz, Trinketek eskuratu du, *Sardinatxoa* izenekoarekin, "arrain eta barazkien konbinazioan lortutako zapo-reagatik". Eta publikoaren saria Amesti tabernarentzat izan da, *Carrillera de la Juani* pintxoarengatik. Sari-banaketa San Andres egunean egingo da.



## Josune Arangurenen erakusketa Andretxean

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko dute “EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak” izeneko erakusketa, Andretxean (Damaskinatzaileak aretoan). Antolatzaileen berbetan, “bizipen eta gogoeta pertsonaletan oinarrituta, Josune Aranguren Zatika artista eibartarrak bere testu eta margolanen artean loturak ezartzen ditu, emakumeek hainbat esparru eta egoeratan jasaten ditugun indarkeria sinbolikoak ilustratuz”. Erakusketa 15 irudik eta 13 testuk osatzen dute, baina bisitariek falta diren testuak eta margolanak gehitzeko aukera izango dute, horretarako materiala eskuragarri egongo baita. Otsailaren 29ra arte egongo da ikusgai.



## Indalecio Ojanguren lehiaketako lanak ikusgai

Barixakuan inauguratu zuten XXXVI. Indalecio Ojanguren lehiaketan saritutako argazkien erakusketa, Portalean. Azaroaren 19ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Beti bezala, edizio honetako sariak inaugurazioan bertan banatu zituzten. Aurten Ohorezko Saria Diego Pedra Benzalek (Cornella de Llobregat, 1953) irabazi du, “Luces” izeneko argazki-bildumarekin.



## MICE eta Kokein elkarrekin arituko dira gaur Ermuan

Gaur 20:30ean hasiko da Ermua Antzokian MICE eta Kokein, Eibarko bi taldeen kontzertua. Miren Narbairzak 2017an sortu zuen MICE proiektua, musikaren bideetan sakontzen eta ikasten jarraitzeko. ‘MICE’ (2017) eta ‘Zilar Printzak’ (2019) argitalpenen ondotik, ‘Lautada’ aurkeztu zuen iaz. Eta Kokein 1999az geroztik ari da musikaren munduan. Kaleratu duen azken lanean, ‘Atomika’, taldea inoiz baino dantzagarriago ageri da. Sarrerak 12 euro balio du.

## Bihar ospatuko dituzte magostoak Galiziako Etxekoek, Urkizun

As Burgas Galiziako Etxeak antolatuta, bihar ospatuko dute “Omagostos” jaia, Urkizuko parkean. Gaztaina erreak saltzeaz gain, Galiziako Etxeko jai-batzordeak parkean ipiniko duen txosnan pintxoak (txorizoa, lakoia eta enpanada), salda, Ribeiro Ardoa eta Estrella de Galicia garagardoa hartzeko aukera egongo da.



## Eskola arteko bakailao txapelketa




Azaroaren 18an egingo da XIX. Eskola arteko bakailao lehiaketa, Errebal Plazan, 10:30ean hasita. DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleen arteko irabazleek 200 euro-

ko saria jasoko dute (bikotearentzat), garaikurrarekin batera. Ikastetxerik onenaren saria ere banatuko da. Izen-ematea azaroaren 13ra arte egin daiteke, Eibarko Udalaren webgunearen bitartez.



AURKITU 8 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2				4	5	
	8		4	7	3		
			2			9	
5	9	4	3			7	
7			5		4	8	2
9			6				
		5	4	7			1
1	4						5

R	S	J	C	E	D	B	N	L
R	I	A	R	I	P	Q	C	C
R	E	Z	E	N	L	M	Z	B
C	E	P	S	S	E	L	I	A
C	E	S	P	I	J	Z	O	O
L	B	Z	E	C	O	R	E	S
E	J	R	E	C	O	L	O	R
I	S	L	A	P	O	O	O	R
S	P	R	I	R	A	S	O	R

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				5			9	4
	2						8	5
		4	8			6		
				7	1	9		
9	7						4	1
		1	3	9				
		7			6	1		
2	1							6
8	3			2				

S  
U  
D  
O  
K  
U

soluzioa

R	S	J	C	E	D	B	N	L
R	I	A	R	I	P	Q	C	C
R	E	Z	E	N	L	M	Z	B
C	E	P	S	S	E	L	I	A
C	E	S	P	I	J	Z	O	O
L	B	Z	E	C	O	R	E	S
E	J	R	E	C	O	L	O	R
I	S	L	A	P	O	O	O	R
S	P	R	I	R	A	S	O	R

# Azaroak 2 - 8

## BARIXAKUA 3

**BARIXAKUAK JOLASIAN**  
17:00 Barixakuak Jolasian. Urkizuko parkea.

### INAUGURAZIOA

19:00 "EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", Josune Aranguren Zatika eibartarraren erakusketak. Andretxea (Damaskina-tzaileak aretoa).

## ZAPATUA 4

### DASTAKETA

12:00/14:00 Tripontziak ekimen gastronomikoari lotutako dastaketa, Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko sukaldaritzak ikasleen eskutik (aurretik izena eman behar da). Azitain (Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua).

### 1980-AN JAIOTAKOAK

12:30 Urte horretan jaiotako eibartarren bazkari-jaira doazenen talde argazkia. Untzaga.

### KONTZERTUA

19:00 Andres de Egiguren orkestra, Maite Lorenzo eta Juanma Cano aktoreen, Eva Rivera dantzariaren, Esteban Oroz margolariaren eta Iñigo Santacana eszena zuzendariaren partaidetzarekin. Zuzendaria: Pedro Palacin. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



## DOMEKA 5

### ZUHAITZ-LANDAKETA

09:30 Zuhaitzak landatzeko izena eman dutenak elkartzea, automobiletan nola joan antolatzeke. Ipuuruako Eroski (aparkalekua).



## ASTELEHENA 6

### FILM LABURREN JAIALDIA

20:00 Asier Errasti XXIV. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Doan. Coliseo.



## MARTITZENA 7

### FILM LABURREN JAIALDIA

20:00 Asier Errasti XXIV. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Doan. Coliseo.

## EGUAZTENA 8

### HITZALDIA

17:30/19:30 "Emakumeen eta gizonen arteko harreman parekideak" (gizonentzat). Portalea (ikastaro gela).



### HITZALDIA

18:00/20:00 "Emakumeen eta gizonen arteko harreman parekideak" (emakumeentzat). Portalea (ikastaro gela).

### FILM LABURREN JAIALDIA

20:00 Asier Errasti XXIV. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Doan. Coliseo.

## EGUENA 9

### ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaeleentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

### BILERA IREKIA

18:30 Azaroaren 30ean egingo den Greba Feminista prestatzeko. Andretxea.

### FILM LABURREN JAIALDIA

20:00 Asier Errasti XXIV. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Doan. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

### Azaroaren 5era arte:

- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN erakusketak.** (Topaleku).

### Azaroaren 19ra arte:

- **"EYBAR", Javier Rodríguez Perez-Curielen instalazioa.** (Portalea).  
- **INDALECIO OJANGUREN XXXVI. argazki-lehiaketa.** (Portalea).

### Otsailaren 18ra arte:

- **"TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena.** (Armagintzaren Museoa).

### Otsailaren 29ra arte:

- **"EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKA eibartarraren erakusketak.** (Andretxea).

## Eskualdeko Agenda

### ERMUA

3an (BARIXAKUA)

### KONTZERTUA

20:30 / Ermua Antzokia  
MICE + Kokein.



### ELGOIBAR

#### IHES-GELA IBILTARIA

Barixakuan: 17:00-21:00

Zapatu eta domekan:

10:00-14:00 eta 17:00-21:00  
"17. logela"



# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **6an:** 19:30

**“Sabenaquell”**  
KOMEDIA




2023/Espainia/117'  
Zuzendaria: David Trueba  
Aktoreak: David Verdaguer,  
Carolina Yuste, Pedro Casablanc  
**60-70 urteak/Biografikoa**

## 2 ARETOA

- **4an:** 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 19:30

**“Esta ambición desmedida”**  
DOKUMENTALA



2023/Espainia/118'  
Zuzendaria: Cris Trenas  
Aktoreak: C. Tangana  
**Musika inguruko dokumentala**

## 1 ARETOA

- **5ean:** 20:00

**“Mamacruz”**  
KOMEDIA



2023/Espainia/84'  
Zuzendaria: Patricia Ortega  
Aktoreak: Kiti Manver,  
Pepe Quero, Ines Benitez  
**Zahartzarora/Informatika**

## ANTZOKIA

- **4an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **5ean:** 17:00

**“Richard la cigüeña...”**  
ANIMAZIOA



2023/Alemania/84'  
Zuzendaria: Benjamin Quabeck  
**Abenturak/Hegaztiak/Sekuela**





## Maria Luisa Garate Altuna

**9. URTEURRENA**  
2014/11/06

“Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza”

- ETXEKOAK -

Bere aldeko URTEURREN MEZA ospatuko dugu azaroaren 6an, 18:00etan, San Agustin parrokian





**JOSE MARIA LARREATEGI “TXOPEN”**

**5. URTEURRENA**  
2018/11/03



**JERONIMA MANDIOLA BILBAO**



**6. URTEURRENA**  
2017/07/13

“Zuek biok eskainitako maitasunarekin gelditzen gara. Beti gogoan izango zaituztegu”

- ETXEKOAK -





943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAHIA!!**  
Domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Gozatu eguna!! Musu haundi bat hainbeste maitte zaittuen famelixaren partez.



Zorionak, **ENEKO!!**  
Atzo 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi pillua famelixaren partez.



Zorionak, **MARKEL!**  
Astelehenian 3 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat famelix guztiaren eta, batez be, Julen eta Danelen partez.



Zorionak, **PAÚL.**  
Urriaren 31n 2 urtetxo bete zenduaz-en!! Segi etxeko terremotua izaten! Pillo maite zaittugu!! Amatxo, aitatxo eta Claudiaren partez!!!



Zorionak, **EKHI.**  
Hillaren 1ian 5 urte bete zenduaz-en-eta. Besarkada haundi bat etxe-kuen eta, batez be, Pauleren partez.



Zorionak, **YANIRE,**  
atzo zure eguna izan zan-eta. Bizi izan doguzen -eta oindio biziko doguzen- une guztiengaittik. Zure lagun feminis-taren partez.



Zorionak, **JON,**  
domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelix guztiaren eta, batez be, Maider zure arrebaren partez.



Zorionak, **IZAR,**  
bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Etxeko poza zara. Illargi-raiño eta buelta maite zaittugu, pitxurrina. Etxekuen partez.



Zorionak, **MARKEL!**  
Domekan 4 urte beteko dozuz-eta!! Jarraitu alaixa izaten!! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Lukenen partez.



Zorionak, **BEÑAT,**  
txapeldun! Ondo ondo pasau eta besarkada potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, **JULE eta EIDER,**  
3 urte bete dozuz-eta. Etxeko txikixendako musu potolo bat famelixaren partez.

## Ana Dominguez Areta

**1. URTEURRENA**  
2022/11/05

"Beti egongo zara gurekin. Maite zaitugu"

- ETXekoAK -

## Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

2023/10/23

MILESKER  
une latz hauetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.

- ETXekoAK -

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Eibarko Untzaga Plazan etxebizitza salgai. 79 m<sup>2</sup>, guztiz berriztua, argitsua, balkoia, 3 logela eta igogailuarekin (ez da 0 kota), 634430647.

### 1.2. Errentan

- Buhardila-loft txikia alokagai Eibarko erdialdean azarotik aurrera. Igogailua eta aire egokitua. 686829613.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 646821678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. 632980833. Ana Mirena.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. 631307303. Angie Paola.
- Neska eskaintzen da zaintzaile bezala arratsaldez. 649025614.
- Gizonezkoa eskaintzen da etxeetan lan egiteko. 679912841. Juan Loor.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 614339369.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 614197781.
- Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da goizetan ume bat edo bi zaintzeko zein eskolara eramateko. 616817058.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Habilitazioarekin. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 611571297.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da garraiolari bezala, furgonetarekin. Prezio onak. 612223075.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. 612518275.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. 602381455.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo errekaduak egiteko eta umeak zaintzeko. Orduka. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 615379164. Elsa.

- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 620757528.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Egoera onean. Antieskaraz koltxoia, barroteak eta mahai tolesgarriarekin. 650989660. Arrate.

# AUPA EIBAR



**Zatoz pisu pilotua ikustera**

Gimnasioa · Gourmet aretoa · Garajea · Trastelekua

**900 11 00 22 · [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**

## ILLUNABARRIAN IKASTAROAK

(...eta kitto! Euskara Elkarte)



**LARRUZKO ZORROAK**  
**azaroak 14**  
(18:30-20:30)

**OTEIZA-KUTXA HUTSAK**  
**azaroak 21**  
(18:30-20:30)



**...eta kitto!-n**

IZENA EMATEKO: 943200918 / [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus) (5€)



# IRAZABAL

clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea


Odontologian Lizentziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontozian, inplantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Autran Institutua. Bartzelona.  
Etegabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Oklusioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktorea.

## Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)